

**Zorionak
Beñat!!**



drogeteniturri

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 185. alea 2010eko abendua

TOKIKOM

GREMIOEN GIDA

DEKORAZIOA
OBREKIN KOORDINAZIOA • MARIAN CARRACEDO DEKORATZALEA

dekorazio estudioa

trastévere
barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua
tel/faxa. 943 17 90 89
trastevere@wanadoo.es

ITURGINTZA

FONTANERIA
B. DE DIOS

Baimendutako instalatzaileak
iturgintza, gasa, kalefakzioa eta
petrolio produktua
Komunetako altzariak
eta osagarriak

Gipuzkoa etorb. 48 - behea
Tel/Fax. 943 17 01 09
E-maila: bdedios@euskalnet.net



ELEKTRIZITATEA

BETA

**ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Kalefakzioa
- Instalazioak
- Gaueko tarifa
- Erreformak
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behea (Wialabia)
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

LUIS VALLE

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56

Goienkale z/g

PERTSIANAK

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTIAI ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:
Zearreko buelta 2
943 17 66 34
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60

SERRAILAGINTZA

SEGURTASUNA **K21**

GILT'ZAK
SARRAILAGINTZA

• Era guztietako sarraila eta segurtasun kutxen SALMENTA eta MANTENUA.

• Sarrailen EGOKIPENAK.

• Era guztietako giltzen KOPIAK.

• Segurtasun eta inheserako INSTALAKUNTZAK.

• Trabatutako ateak ASKATZEN ditugu.

Urgentzietarako ZERBITZUA:
943 701391
- Betatik 24etara -

Arragueta 3 (Eibar) - 943 701 391
www.giltzak.com

TELEKOMUNIKAZIOA

Cable Spot

Zure antena TDTra egokitu.
**ETEN ANALOGIKOA
GERTU DAGO!**

- Antena kolektiboak
- Atezain automatikoak
- Telefonía mugikorra.
- Zuntz-optikoa.
- Banda zabala.
- Kable telebista...

euskaltel

ERMUA. San Pelayo 4 behea.
943 172314

**Gremioen Gidan
publizitatea jarri
nahi baduzu...**

**deitu
943 17 93 50**

edo 688 63 28 76

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu, Igone
Amesti, Asier Ibaibarriaga
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Joseba Barrenetxea

LAGUNTZAILEAK:

Patxi López, Valentín
Mugarza, Pello Mugarza,
Fernando Aranberri eta
Fede Iturriagagoitia.

ARGAZKIAK:

Eba Beitia, Alazne Aiestaran,
Estibalitz González,
Loli Bello, Dorleta Vidal,
Eneritz Aranburu, Igone
Amesti, Ermuko Udala eta
Asier Ibaibarriaga.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Tamara Lorente, Nora
Mateos eta Ane Loiola.

TIRADA:

2.200 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

MOZOLO ZURIA

Lechuza común Tyto alba



Leun-leunak ditu lumak, terziopeloa parekoak, eta saguren bat-edo bistaritzen duenean lumen fintasunari esker ia zaratarik egin gabe mugitzen da gaueko isiltasunean. Eta erpepean harenbaten sagu hori harrapatu ere: katuek baino arratoi eta sagu gehiago ehizatzen du, kolore barik! Ezertan lilurutzen bagaitu hegazti honek, bere burua biratzeko duen ahalmenean da: 270 graduko angeluan ikusteko gauza da, baina gorputza mugitu gabe, lagunok!

Sorginekin eta izpiritu gaiztoekin lotua izan da aintzina-aintzinatik eta gaupazale hau ikusten zaila den arren, bere soinuagatik laster antzematen zaio: "Uuuuh", "uuuuh".

Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO4	KIROLZALE17
Merkatu Plazako Merkatarien Elkartea	Matxalen Ziarsolo
ELKARRIZKETA5-7	IRITZIA18
Beñat Ugartetxea	Txinpartak
MALLABIAN ZER?8-9	SALEROSKETAK19
Udalsarea 21 saria	Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN10	ANTZINAKOAK.....20
Elexostera bueltatu gara	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER?11-15	KALEKO INKESTA21
Jose Serodio	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
BOTEPRONTOAN16	AGENDA22
Hector Izagirre	Urtarileko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Merkatu Plazako Merkatarien Elkartea

Maite Moreno, Maite Gorritxategi eta Asier Bouzo dira gaur egun elkarte honen buru. Eurek hartutako erabakiak gainontzeko dendarekin adosten dituzte eta datozen urteetarako hainbat erronka dute eskuartean.

- Zein urtetan sortu zen Elkartea?

1987ko ekainaren 29an.

- Zenbat kide zarete?

15 merkatarik osatzen dugu Elkartea. Duela urte batzuk kide gehiago ginen, baina merkatu plazako denda kopuruak ere behera egin du.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Gure lana Merkatu Plaza dinamizatzea da, hainbat ekitaldi antolatuz. Horretaz gain, Udalarekin harremana dugu, gure barne arazoak konpondu ahal izateko.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Asteazkenero biltzen gara elkarte hiru kide, Merkatu Plazan, 15.00etan.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Urte osoan hainbat ekintza antolatzen ditugu. Errege-egun bezperan, Gaspar erregea Merkatu Plazan egoten da. Uda-berrian, berriz, dastaketa antolatzen dugu. Inauterietan ere egitarautxoak izaten dugu (Ermuko Merkatarien Elkartearekin batera) eta baita ere Amaren egunean, Jardunaldi Gastronomikoetan eta Santixauetan. Udazkenero, berriz, txistorra dastaketa egiten dugu Minbiziaren Kontrako elkartearekin batera eta aurten arte jaiotza ipini izan dugu Gabonetan. Tartean zozketaren bat egiten ohi dugu eta aurten, gainera, ekintza bereziak egon dira Merkatu Plazaren 25. urteurrena ospatu dugulako.

- Aurrera begira zeintzuk erronka dituzue?

Hainbat gauza egiteko asmoa dugu. Alde batetik Merkatu



Plaza barrutik margotu eta argiztapena aldatu nahi dugu eta horretarako Udalaren diru-laguntzaren zain gaude. Pertsona nagusiei sarbidea errazteko, 1. solairuko merkatariei beheko solairura aldatzea proposatu zaie. Momentu honetan zenbait postu daude libre solairu horretan eta aldaketa horrek bizitasuna emango lioke Merkaturari. Dena erabat modernizatzea da gure asmoa, bai barrutik zein kanpotik ere, gazteak Merkatura erakartzeko, hori baita gure gaur egungo benetako erronka.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Ermuko Merkatu Plazan gaude, denda-ordutegian.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOGEGIA

7HCHN CERYECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78



Beñat Ugartetxea, bertsolaria:

“Bizkaiko txapelketako finalean parte hartzea saria da niretzat”

Etxeko bertsozaletasuna jasoaz, 11 urte inguru zituela hasi zen Beñat Ugartetxea bertsotan, Jon Lopategiren eskutik. Hiru anaien artean gazteena da eta bere anaia den Arkaitz Ugartetxeak, Bizkaiko finalean bi bider kantatzea lortu zuen erretiratu aurretik. Beñatentzako lehengo finala izango da hau, eta nahiz eta gaur egun Zornotzan bizi den, ikusmin ikaragarria sortu du bere jaioterrian, Mallabian. “Mallabitarrek beste herritar bat ikusteko gogoia dute eta sortu den giro horrek asko animatzen nau”, dio. Finala abenduko 18an ospatu zen arren, Drogeteniturrri aurretik egon zen Beñatekin.

- *Gernikako finalerdian zure izena entzun zenuenean, zer pentsatu zenuen?*

Egia esan sorpresa handia hartu genuen denok, ez bakarrik izenagatik baizik eta emandako puntuazioagatik. Oso pozik geratu nintzen egindako lanarekin, baina ez nuen espero irabaztea faboritoa Fredi Paia zelako.

- *Txapelketak bi urtean behin izaten dira. Zergatik ez zenuen parte hartu duela bi urte?*


Momentu horretan Otxandion bizi nintzen. Goizez egiten nuen lana 8 orduz eta horren ostean 3 ordu ematen nituen Gasteizko gau-eskolan, modulu bat ikasten ari nintzelako. Gainera urte horretan umea jaio zen eta gauza larregi zirela iruditu zitzaidan. Etenalditxoia egitea erabaki nuen eta bertsoak albo batera utzi tarte batez.

- *Etenaldi hori mesedegarria izan dela dirudi, ezta?*

Nik baietz esango nuke. Gogotsu nago, pikantetsuaz.

- *Bueltatu zarenetik, aldatarik sumatu duzu bertsolaritzan?*

Bai. Alde batetik, finalean daudenen aurpegiak aldatu dira. Aurreko finaletan ibilitako batzuek ez dute txapelketan parterik hartu eta beste batzuk kanpoan geratu dira. Publikoaren adina ere aldatu da, gazteak gero



Beñat (ezk.) 11 urterekin, Mallabiko bertso-eskolan.

DROGETENITURRI 7 zka. 1991ko Abendua 21

eta gehiago datozelako gu ikustera: bertsolariak aldatzen goazen heinean, publikoa ere aldatzen doa. Horretaz gain, antolakuntza gero eta handiagoa da eta komunikabideetan gero eta oihartzun handiagoa du bertsolaritzak. 1990eko hamarkadan bertsolaritzak izan zuen 'boom'-a berreskuratzen doala esango nuke.

- *Zergatik gertatu zen 'boom' horren osteko beherakada?*

ETBko 'Hitzetik Hortzera' programarekin arazoren bat egon zen eta telebistak asteburuetan bertso saio hori emateari utzi zionean, bertsozaletasunak behera egin zuen. Orain, telebistan ematen hasi dira berriro ere, eta

indarra hartu du. Pilotarekin ere gauza bera gertatu da.

- *Prestaketa berezirik egin duzu txapelketa honetarako?*

Bertsolariak gure artean batzen gara eta aurten bi bertso eskoletan nabilela esan daiteke. Alde batetik, Larrabetzura joaten naiz asteazkenero. Han Fredi Paia, Etxahun Lekue, Arkaitz Estiballes eta laurok biltzen gara. Talde honetatik, azken hirurok finalean arituko gara. Bestetik, ostegunetan, Onintza Enbeitiarekin biltzen naiz Zeanurin, eta bilera horietan, kanporaketetan tokatzen diren ariketak egiten ditugu. Esan behar dut, hala ere, landuta nituen errimak irakurtzen hasi naizela aurten, memorizatzeke, eta horrek asko laguntzen du.

- *Horrekin erabateko bat-batekotasuna galdu egiten da?*

Ez, bertsoak berez bat-batean bota behar dira, baina

bat-batekotasun horretarako erraztasuna hartzeko badaude etxean egin daitezkeen lan batzuk. Adibidez, zeure buruari gai bat ipini eta horri buruz zerbait idatzi. Aurrekoan Onintzak berak egiten dituen ariketak azaldu zizkidan. Beti dago zer landu.

- *Ipintzen dizkizueten gaiek eragin handia dute emaitzetan?*

Bai, ondo prestatuta joateaz gain, zorte handia behar da egokitzen zaizkizun gaiekin. Aurreko faseetan ez bezala, esaterako, finaleko buruz burukoan bakoitzari gai ezberdin bat egokituko zaio eta hor egon daiteke koska: gaia prestatuta duzun edo ez.

- *Nola bizi duzu gaur egun bertsolaritza?*

Oso ondo bizi izan dut beti. Askok gustatzen zait eta gainera, urtean 30 plazatik gora izaten ditut, oso kopuru handia da nire mailako bertsolari batentzat.

“Etenaldia mesedegarria izan da niretzat. Gogotsu bueltatu naiz, pikatetsuaz”

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

- Estutasunik izan duzu?

Bai, baina oso gutxi, neure buruari ez diodalako gehiegi exijitzen. Niri deitzen didanak, niri deitzen dit, eta ez Egañari. Eta plaza batera banoa, badakit zenbat eman dezakedan. Hala ere, batzuetan penarekin bueltatzen zara etxera, ez zarelako ondo aritu.

- Gustuko plazarik baduzu?

laz Zornotza izan nuen gustukoen. Saio musikatu bat egin genuen, 'Hamaika bertute' taldearen bitartez, Ohiana Bartra, Jokin Labaien, Jon Martin eta laurok ibili ginen bertsoan. Kristoren barreak bota genituen, doinuak gogoratu ezinik! Saio ofizialean bi ordu egon ginen, jende mordoak kanpoan geratu zen, barrukoak "beste bat, beste bat!" oihuka... Horrelakoetan harrotuta

joaten zara etxera, poz-poz. Aurten, Bilbao La Vieja-ko bertso-poteo batean parte hartu dut, Etxahun Lekue eta Ibon Ajuriarekin batera eta oso gustura ibili gara.

- Bertso-jaialdia edo bertso-afaria nahiago duzu?

Bertso-afaria. Tabernako giroa plazakoa baino gehiago gustatzen zait. Oholtza gaineko saio batek ez dizu ematen afari batean jendearekin duzun hartu-emana, gertutasuna. Pixkat 'golfuak' gara.

- Publiko ezberdinak daude?

Bai, adinarenatik eta eskualdeka ezberdina da publikoa. Ez da berdina Enkarterrietan edo Lea-Artibain kantatu.

- Bertsolaria jaio edo egiten da?

Lehenengo jaio egin behar

“Neure buruari ez diot gehiegi exijitzen. Badakit zenbat eman dezakedan”

da, plazara irten eta izotza apurtzeko barruan zerbait egon behar delako. Eta besetik, norberak duen enbor hori landu egin behar da. Batzuek enbor handia dute eta oso landua, Maialen Lunjanbiok bezala, eta besteek enbor txikiagoa dugu baina landu dugulako gauden hemen.

- Azken urteetan neska mordoak ibiltzen da bertsoan?

Bai, haur eskoletan gehienak neskak dira eta joera hori da.

- Eta bertsolarien arteko harremana ona da?

Bai oso ona eta hori gauza

pozgarria da. Taula gainean elkarki kontra egiten diogu, baina gero oso lagunak gara. Bertsolaritzak ematen duen gauzarik politena da. Jende ezberdin mordoak ezagutzen duzu eta askotan 'kariño' berezia hartzen diezu. Gainera, saioak bukatzen direnean, zelan aritu garen komentatzen dugu.

- Aldizkaria kaleratzen denerako, finalaren emaitza jakingo dugu dagoeneko. Hala ere, zer gertatuko da zure ustez?

Txapela beteranoek edo Miren Amurizak irabaziko du. Aurpegi berriok nork 5. eta 8. ibiliko gara seguru asko. Onintza oso fuerte ikusten dut, denetan fuerteen, baina gaiak asko baldintzatuko dute.

- Eta irabazlea izango bazina, nori eskainiko zenioke txapela?

Ez dut uste irabaziko dudanik, baina gertatuko baltz, bertan esango nuke. Finalean egotea saria da berez.

Dorleta Vidal



Beñat, 3.a ezkerretik hasita, finalean parte hartu duten bertsolarietako.

Herboralia

Belar-denda

- Fitoterapia
- Aromaterapia
- Bach loreak
- Janari ekologiko eta biologikoak
- Bio-kosmetika
- Pertsonalizatutako dietak
- Teak pisura
- Masajeak

Zatoz medikuntza naturala probatzera!

Goienkale 4 - Ermua
943 17 37 04

Udalsarea 21 sarixe Mallabiko Industrialdeen ekosistema proiektuarentzat

Ekoberrikuntza kategorian jaso dau 2010eko Udalsarea 21 sarixe Mallabiak. Pilar Unzalu, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren eskutik jaso eban sarixe Aitor Loiola alkatiek pasa dan abenduaren 1ien, Euskal Udalerrien Tokiko Agenda 21aren 8. Jardunaldixen.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 46 udalerrik emon ebien izena eta honetatik 15ek lortu ebien finalerako txartela. Azkenik irabazliek 5 izan dira: Legazpi, Klima Aldaketa kategorian; Amurrio, Biodibertsitaten; Azpeitia, Iraunkortasunerako Hezkuntzan; Zornotza, Ekintza Eredugarrixen eta Mallabia, Ekoberrikuntzan. Udalsarea 21 programan guztire 165 udalerrik hartzen dabe parte eta bost herri honeek jaso dabien sarixen bittartez, Euskal Autonomi Erkidegoan eta udal mailan, jardunbide onen artien onenak daukiezarak saritzen dira.

Mallabiko Udalak Ekoberrikuntza kategorian 3000€ko sarixe jaso dau, proiektu jasangarriek aurrera ataratzeko erabiliko dana. Udalaren proiektuek, Goitondoko industrialdietan ekosistema naturalen antolaketie aplikatzie dau helburu. Proiektu honetatik Ekintza Plan bat atara da eta plan horrek industrialde-



ko enpresen lankidetzari ekin nahi deutse baliabidien kostuek gitxitzeko, hondakinek berrerabiltzeko eta materixalen garraiuari, mugikortasunari eta enpresen jardunbide egokixen trukiari eta horrek ikasteari dagokienez, baterako ekimenak proposatzeko. Adibidez, gaur egun baliabide energetikuen erabilera egokixe lortzeko sistema barrixek erabiltzen eta proposatzen dira. Enpresa barri edota barrikuntzak sufrittu dittuen enpresetan ikusi geinkez elektrizitate sortzeko eguzki panelak edo eguzki energia aprobetxatzeko diseinu egokixek. Kartoi, olio eta ur hondakinen kudeaketa egokixe be aintzat hartzen da Mallabiko enpresa askotan.

Ego erreka kolektorea

Mankomunitatearekin egin izan da saiakuntza bat papelaren eta kartoiaren kudeaketaren inguruan. Enpresariet interes haundixaz hartu ebien frogua hau. *"Ebatzi dugu oso interesgarria izango litzatekeela konpaktadora bat jartzeta"*, dinosku alkatiek. Halan, proeiktu hau onartua izan da Mallabiko Plan Orokorrien, berau martxan jartzeko *"Foru Aldundiaren erantzunaren zain gauden arren diru laguntzari dagokionez"*. Mallabiko Udalaren ardura haundixenetao bat Goitondoko industriguniek sortzen daben arazo nagusixetako bat da, Ego erreka egiten diren isurketak. Udalaren ustez, *"beharrezkoa*

da kolektore bat ipintzea Ego erreka bistaratzeko eta Ermua, Eibar, Elgoibar eta Debaraino ahalik eta era egokienean heldu daiten".

Mallabiko Udalarekin batera, Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarte Debegesa, Arrasateko Unibertsitate eta Euskal Herriko Unibertsitate arittu dira lanien proiektu honetan. *"Bide onetik goazen adierazgarri da eta bide beretik jarraitzera bultzatzen gaitu"*, dinosku Aitor Loiola alkatiek. Proiektua saritua izan da eta orain apurka-apurka martxan jartzeta aurreikusit dute. *"Ea Goitondoko enpresak, Udalak eta erakundeok bat egiten dugun hau aurrera ateratzen"*, azpimarratu dau alkatiek.

ARTARRAI
OPARI DENDA



Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19
ERMUA

O eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

mimitos

Zapatak, pijamak,
lentzeria, aulkiak,
sehaskak, tronak...
behar duten guztia!

*Eta gainera 'Hello Kitty'-ren
artikulu mordoa!*

Probaleku 4, Ermua • ☎ 943 033 830

UMIEK EUSKARAZ INSKRIBATZEKO ESKUBIDIAREN ALDEKO MOZIOA ONARTU BARRI DAU MALLABIKO UDALAK

Mallabiko Udalean UEMAK proposatuta abenduaren 9an onartu zan jaiotza, ezkontza eta heriotza erregistroak egiteko euskaldunon eskubidearen aldeko mozioa. Erregistro zibilen kudeaketa egiteko eta urte batzuk barru derrigorrezkoa izango dan 'Infogeg' aplikazio informatikoa ezarri nahi dau Mallabiko Udalak. Aplikazio honen bidez ume jaixo barrixek euskaraz erregistratu ahal izango dira.

Ume jaixo barrixek euskaraz erregistratzeko ez dago legezko oztoporik 2005 urtetik, baina ez da egiten. Arazoa erregistro liburuak erderaz dagozala da eta beraz ezin dala umerik euskaraz erregistratu. Aitor Loiola Mallabiko alkatearen esanetan "eskubidea aitortzen da baina hau gauzatzeko estatuko administrazioak eta EAeko administrazioak ez dute inolako mekanismorik jarri". Oztopo honekin euskaldunen hizkuntza eskubidiek urratzen direla argudiatu dau. "Premiazkoa iruditzen zaigu ahalik eta lasterren jaiotza, ezkontza eta heriotza erregistroa euskaraz egiteko neurriak hartzea eta horiek euskaraz egiteko bideak jar ditzaten eskatzen diegu dagokien arduradunei", dinosku alkatiek.

Mallabiko Udalak dei egiten deusie herritarrei bake epaitegixen zerbitzue euskaraz eskatzeko eta euskaraz jaso ezien erreklamazinuek ipintteko. Umiek euskeraz erregistratzeko eskaera egiteko orrixek eskuragarri dagoz bai udalean zein UEMAn.

OLENTZERO ETA URTEKO AZKEN TRIKI-BERTSO-POTEUE

Urtero legez, txiki, gazte eta nagusi danok espero dogun moduen, Olentzero mendittik herrire etorriko da bere astotxue opariz lepo beteta dakarrela. Abenduaren 24en, eguena, arratsaldeko 7retan Mallabiko plazan emongo deuskuz Olentzerok oparixek. Urtetik urtera opari gehixago eta beraz, karrie be betiago ekartzen dau gure Olentzero ikazkinek, laguntzailie be topatu dau eta! Bere zain egongo gara danok eta Olentzero kantatuz hartuko dogu gure artien.

Bestalde eta kantuari jarraituz, abenduaren 31n, bertsolarixek eukiko doguz gurien. Azkenengo urtietan egin izen dan moduen, lagun asko batuko gara Mallabiko tabernetan afal aurreko poteotxue egitteko. Aurtengo honetan Beñat Ugartetxea bigarrenez aitte izeteko da eta ez da ziurre bertan izengo dogule, beraz bertsolarixek bai, baina nortzuk izengo diren ez daukagu informaziorik aldizkari hau atartzeko sasoi.

Orraitiotik esan deuskuenez, aurreko astietan kartelak ipiniko dabiez eta jakingo dogu nor izengo dan kantari Mallabiko trikitilarixekin batera herriko tabernetan ziher. Arratsaldeko 8retan, plazan hasitte, herri osuari buelta emongo deutsegu 2010ari agur esan eta 2011 barrixari ondo etorrixek emoteko.

Eneritz Aranburu



**CITROËN
Autos AMEDI**

Zearreko buelta 3 L8 pab.
Tel. eta Faxa. 943 17 04 14

solozabal
tabakoak



torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



**DULCE
BEBÉ
PEQUE'S**

0 eta 4 urte
bitarteko
umeentzako
moda eta
puerikultura

Zubiaurre 30 · ERMUA
943 170 005



**FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€), menua,
plater konbinatuak, bokatak,
pintxoak, kazolak...

* Bazkari eta afariak
parrillan (enkarguz):
txuletak, arraina...

Enkarguak:
943 174 952
(astartetan itzida)



**OLENTZERO TXIKI,
ABENDUAREN 24AN**

Umeentzako kalejira antolatatu du Anaitasuna Ikastolak urtero lez abenduaren 24rako. Olentzero Txikia 11.00etan irtengo da Kardinal Orbe plazatik eta herriko kaleak zeharkatuko ditu, Alboka Musika Eskolako trikitilariekin batera. Ekimen honetan, Anaitasuna ikastolako ikasleez gain Ermuko gainontzeko eskoletako umek parte hartzen dute, ikastolak gonbidatuta.

**SAN MARTINEKO
TXERRIAREN ERRIFA**

Elena Santosek irabazi du aurten San Martin azokako lehenengo saria, 0679 zenbakiaren jabe izateagatik. Elenak eta bere mutilak txerria edo 300 euro zituzten aukeran eta dirua hartzea erabaki zuten. Zorionak!

Juanita Ibaibarriaga lehiaketaren sariak banatu dira

Euskal Birusak urtero antolatzen duen Juanita Ibaibarriaga literatur lehiaketaren sari-banaketa azaroaren 25ean burutu zen. Ipuin lehiaketan hauek izan ziren saridunak: 3. mailan, Saioa Gutierrez (Eskolabarri); 4. mailan, Aitor Rubio (Eskolabarri); 5. mailan, Arantzazu Mugerza (Anaitasuna Ikastola); 6. mailan, Ainhoa Horrillo (Anaitasuna Ikastola); DBHko 1. mailan, Eneritz Miguel (Ongarai BHI) eta DBHko 2. mailan, Jone Rodriguez (Ongarai BHI). Gazte hauek 40 euroko erosketa txeketa jaso zuten. Erreportajeen modalitatean Tania Alonso izan zen garaile eta honek 400 euroko saria jaso zuen. Iaz, 2008 eta 2009ko idazlan sarituak bildu eta liburua kaleratu zuen Euskal Birusak. 2011n, aurtengo eta datorren urteko lanekin liburua kalera-tzeko asmoa du elkarteak.

**Triki-poteoa gabon zahar egunean**

Ermuko gazte talde batek soinu eta panderoak hartuko dituzte gabon zahar egunean, eta triki-poteoa egingo dute parte hartu nahi duten ermuar guztiak batera. Triki-poteoa 19.30ak aldera hasiko da Patxi plazan, Olentzero erre ondoren, eta jendea afaltzera joan arte iraungo du. "San Martin egunean, trikitilari talde bat poteoan geunden eta jotzen hastea bururatu zitzaigun. Espero gabe, antolatu barik zegoen 'ekimen' horrekin giro aparta sortu genuen, kalean bildu zitzaigun jendeari esker -diote-. Horregatik, errepikatzea pentsatu dugu". Antolatzaileek herriko trikitilari eta pandero-jole guztiak gonbidatu nahi dituzte, animatu eta ekimen honetan parte har dezaten.

**Euskal Birusa eta Drogeteniturri:
Elexosten gaude berriro ere**

Gure bulegoan obrak izan direla eta, denbora luzez Elexostetik kanpo egon behar izan dugu. Ia zortzi hilabete izan dira guztira eta tarte horretan, Ezker Batuak utzitako lokalean izan dugu gure behin-behineko egoitza. Ezker Batuaren laguntzari esker, Euskal Birusa Elkarte Kulturalak ekimenak antolatzen jarraitu ahal izan du (hala nola Santixauetako txikurixa edo San Martin azoka, besteak beste). Drogeteniturri aldizkaria kaleratzea ere, Ezker Batuaren azpiegiturei esker izan da posible hilabete hauetan. Eskerrik asko, benetan! Bestalde, itxaronaldiak merezi izan du: Elexoste erabat berrituta dago eta bai langileok zein bisitariak gusturago egon ahal izango gara bertan. Bisitan etorri nahi baduzu, badakizu non gauden, Erdikokale zeharbideko 2. peoran, 1. pisuan.

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MUGA **KIKIOLAK**

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

★ **BACKSTAGE**

6-16 URTEKOENTZAKO
ARROPA!

Zubiaurre 30 · Ermua
943 174 576

IZOTZ
IZOZTUAK

ERMUA
Merkatua
54-55 postuak
943174101

ARRASATE
Merkatua
943770598

**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

**Infreñu
Taberna**

Kardinal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

blush

Santiago Plaza 3, behea · ERMUA
943 10 82 42

Emaiozu kolorea zure elkartasunari!!

Kolorezko orri hau gorde dugu hiru argazki hauek argitaratzeko, koloreak bakarrik ematen digulako lehortetik aberastasunera bitartean dagoen pausoaren neurria. Ur-putzu eta hari esker egindako ur-kanalizazio batekin hasi zen guztia: Senegalgo Shangué herririkak, Bizkaiko Ermua herritik joandako diruari esker ahalbidetutakoa.

laz, Elkartasuneko Tonbolan ateratako irabazien zati bat bertara joan zen, Hortensia Perosanz ermuarrak martxan duen proiekturako. Eta gainontzeko dirua, Perura eta Txilera, bertan dauden Garbiñe Esturo, Germán Saenz de Zaitegi, Mireia Suárez, Iñaki Peña eta Niko Urreta mixiolariei laguntzeko.

Gutun baten, hauxe diote: "La generosidad de personas como ustedes nos permite seguir de pie. Gracias Ermua".

Aurtengo Tonbola Valdespinako Markesaren kalean jarri dute, abade-etxearen ondoan eta boletoa amaitu arte egongo dira bertan. Datorren urteko tomate ekoizpenak eta beste



hil ala biziko 5 egitasmo gehiagok, kanpotik datozen laguntzen menpe jarraitzen dute.

Estibalitz González



MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGAÑA

ALDAGAILUAK



GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

DO
Mouth

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5 ERMUA

san pelayo
clínica dental hartz klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04



**ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON !**



Artarrai Mendi Taldea
www.artarrai.com
www.bizpadi.com



ARTARRAI
MENDI TALDEA

Cowboyak, epika eta taberna giroan gau laburrean

Baja batekin hasi zen gaua 'Rombos Negros'ekoek ezin izan zuten-eta taldekide guztiak ezin zirelako agertu. Hala, hasierako huts horrekin, gauak hobera besterik ezin izan zuen egin. Horren erantzule bakarrak gainontzeko taldeak izan ziren: Doctors Klub, Karpovian Project eta Ez!

Doctors Klub

Lehenak oholtza hartzen Doctors Klubekoak izan ziren. Cowboy txapela buruan, aretoa berotzeaz gain ikusleei 'lassoa' botatzea ere izan zen Durangaldeko County-ko mutikoen lana. Giroa aha-legina ez zen gutxiestekoa izan, lasto-fardo eta guzti agertu zitzaizkigun-eta Espalioan. Txukun eta gitarra laztanduz hasi ziren, harmonikarekin eta suabe abestuz.

Hasiera lasaitxoari buelta eman ez batera sartu, 'yee-ha!' pare bat eta hasi zen kodarodun alkandoradunen festa. Agian, makalen ahotsetan jardunik ere, harmonikaren epeltasunak goxatu zuen ahotsen lakartasuna, punkyagoa izan dena countrya baino. 'Chapeau?'... hainbesterako ere ez.

Karpovian Project

Bigarrenik Danbakako ohiko metal anoa baina ohikoan baino berun kopuru gutxiagokoa; melodiaren alde eginenez, hortaz, rockeroago. Hori bai, epikotasun sentimentala ez zuten baztertu - geurrean hain ondo funtzionatu ohi duen ukitu hori. Ikuslerik finenak ere hauek ekarri zituzten, lora eta guzti bota zizkieten (metaforikoak).

Patroietatik irten barik baina estu egon gabe, neurrian instrumentu guztiak eta ahotsa, baina - beti baina bat - egur apur bat gehiagok distira eta presentzia emango lieke mutrikuarrei.

Ez!

Laburra ona bada bi aldiz ona eta azaroaren 19ko saioa behintzat motza izan zen. Ez! Oñatitik, gitarra zorrotz, bateria temati eta tabernako ahotsarekin. Kaleko betiko soinua, beharbada, espe-ro baino tonu lasaitxoagoan. Gaueko presentziaren saria hauena izan zen, baina paporean erabat murgildutako erdi abeslari, erdi antzezlearekin. Dantzarako aukera eman zuten eta alaitasun puntua ere.

Danbakaren laugarrena: nor baino nor ezberdinago, eta ikuslearendako denetariko doinuak

Scam

Scam talde aretxabaletarri egokitu zitzaion azaroaren 26ko gaua ixtea. Hasieratik lehen ilaretara jendea erakarri zuen talde bakarra izan zen, jende askotxo etorri zen eurak ikustera. Taldearen hasierako urteetako punk-rocketik harantzago, metal eta hardcore doinuak nagusitu ziren Aretxabaletako laukoteak eskainitako ordu erdian. Musikalki heldutu dira eta baita agertokian egoteko gaitasun aldetik ere.

Seafóid

Seafóid izan zen gaueko hirugarrena. Irlandako jatorri izendapena duen folka izan zen emanaldiaren ardatza. Baina ez ziren izan folk doinuak entzun ziren bakarrak, ez horixe. Rock eta pop doinuek ere pisu handia izan zuten ermuar eta eibartarren ordu erdian. Abeslariak -Irlandan jaiotakoa- eta haren gitarra akustiko zein elektrikoak gidatu zuten saioa, hori bai, goi mailako musikarien ezinbesteko laguntza.

Xarma

Seafóid baino lehen Xarma izan zen agertokian, eta bai, izena bat dator izaerarekin. Xarmak, xarma berezia duela erakutsi du. Hasiera ona, gogotsu irten ziren, baina arazo teknikoak izan zituzten bi gitarra joleek eta bateriako kaxa apurtu zitzairen. Rock gogorra ekarri zuten bizkaitarrek eta agertokia bete zuten. Oso sentsazio onak utzi zituen laukoteak. Arazo teknikoak alde batera utzita, pozik egoteko moduko emanaldia, zalantza barik.

Deabrutu

Xarmaren aurretik, Deabrutu izan zen protagonista: Iñaki Urizarrek aurkeztu zuen Danbakan bere proiektu pertsonala. Agertokian bakarrik eta bateria lagun, doinu gogorak eskaini zitzaizkigun aramioarrak: death eta metal doinuak, hain zuzen. Ez da batere ohikoa agertokian bateri jolea bakarrik ikustea, proposamen ausarta denik ezin ukatu. Hori bai, ikuslearekin feedback gutxi.

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



www.danbaka.com

Jose Serodio, EuskoSkills-eko parte-hartzailea: “Goizeko ordu biak arte azterketa prestatzen egon nintzen”

Abenduaren 11an, 20 urteko ermuar honek Euskal Herriko ‘Skills’ ean parte hartu zuen Bilbon. 20 urte ditu, Informatika sistemen administrazioko tituluduna da eta Informatika-aplikazioen garapeneko ikasle da egun.

- Zer dira Skills-ak?

Lanbide-heziketako ikasleen artean egiten diren lehiaketak. Hainbat esparrutan egiten dira, ile-apaindegi eta sukaldaritza zikloetan esaterako, eta nik ‘Webguneen diseinu eta programazioa’ deituriko atalean parte hartu dut, nahiz eta nire ikasketekin bat ez datorren. Momentuz ez dago horretarako ziklo espezifikorik, baina datorren urtean seguruenik, egongo da.

- EuskoSkills-ean parte hartzeko aurretik sailketa behar izan zenuen?

Bai. Ikastetxe bakoitzetik pertsona bakarra joan daiteke eta horregatik UniSkills antolatu ziren Ermuko Uniko instalazioetan aurrenekoz, hilaren 2an. 18 lagunek eman genuen izena, baina azkenean 12k bakarrik hartu genuen parte. Irabazleak ordenagailu eramangarria irabazi zuen eta ni bigarren geratu nintzen. Kontua zera da, EuskoSkills-ean parte hartzeko 22 urte baino gu-

txiago izan behar direla, eta lehen postua eskuratu zue-na, nagusiagoa zen. Hori dela eta, ni joan nintzen EuskoSkills-era.

- Zertan datza proba hau?

Atari interaktiboa sortu behar da, webgunea. Antolatzaileek gaia ematen dizute, informazioa eta agertu behar diren atalak, besteak beste. Gainera erabili ahal dituzun programak instalatzen dizkizute: Flash, Macromedia Dreamweaver eta Joomla, esaterako. Zuk ataria diseinatu eta programatu behar duzu, hau da, erakargarria eta funtzionatzen duen webgunea martxan ipini behar duzu. Hau guztia 4 orduko epean.

- Gogorra da?

Bai, luzea egiten da eta gainera bizkor ibili behar da. Erremintaren bat ez baduzu menperatzen, ezinezkoa da lana 4 ordutan bukatzea. Hala ere, EuskoSkills-eko irabazleak SpainSkills-en parte hartuko du eta lehiaketa horretan lana 4 ordutan egin beharrean, 4 egunetan egin beharko du. Gauza gehiago eskatuko dizkiote, noski.

- Zenbat lagunek parte hartu zenuten EuskoSkills-en?

6 lagunek. Lehen urtea da eta jendea ez da animatu. Horregatik Ermuko Uni-tik bi



lagun joan ginen, Josu Arakistain eibartarra eta biok. Josuk hirugarren postua izan zuen UniSkills-en. Bilbon berriz, berak bigarren eta nik hirugarren egin nuen, juxtu aldrebes. Lehenengo hirurak oso parekatuta ibili ginela esan ziguten, detailerik txikiak aztertu behar izan zituzten irabazlea aukeratzeko.

- Zergatik erabaki zenuen parte-hartzea?

Klaseko lagunek animatu nindutelako, eta etxekoek ere bai. Ez nuen espero EuskoSkills-era heltzea eta 3.

geratu naiz, flipatu egin dut!

- Hortaz, esperientzia polita izan da?

Bai, duda barik. Hala ere, aurreko eguna zoratzekoa izan zen. Goizaldeko ordu biak arte esnatuta egon nintzen, azterketa prestatzen. Jon Arano laguna, nirekin egon zen ordura arte, nire zalantzak argitzen, eta benetan eskertu nahi diot eskaini zidan laguntza. Irakasleak ere oso ondo portatu dira nirekin eta etxekoek ere asko animatu naute.

Dorleta Vidal

T XALAPARTA ABERNA	<ul style="list-style-type: none"> - Itsaskabra pudina. - Txipiroiak. - Piper beteak: okela edo onddoak. - Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak. - Redondo saltsan. - Sagar tarta. - Gazta tarta. - Tortila patata...
Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!	
Erdikokale 13 (Ermua)	ENKARGYAK 943 030 299



<i>Euskara eta euskaltegia egin biak zureak</i>
Teresa Murga, 2. solairua Tel. 943 17 09 25

HECTOR IZAGIRRE

- Zer ikasi zenuen?

Ni ekonomian lizentziatu nintzen, baina batez ere teknikaria naiz. Hasi nintzen aire-nabigazio ingeniarietza ikasten, baina ez nuen bukatu. Gero, ekonomia ikasketak egin nituen, garapen lokaleko gradu-ondokoak eta seguru aktuario ikasketak ere.

- Izarran egon aurretik non ibili zinen lanean?

Ni lehenengo autonomia izan nintzen, gero Ermuko eta Lekeitioko udaletan ere aritu nintzen.

- Izarran zenbat denbora lanean?

20 urte daramatzat.

- Zein da egun zure lana bertan?

Garapen arlo bat da hau eta hainbat gauza egiten dira. Gaur egun, Makina eskola bateko koordinatzailea naiz. Hondeatzeko makinekin ari gara orain. Ni hasi nintzen hegazkinekin lanean, nahiz eta ez nuen karrera bukatu. Gero energia berriztagarrien arloan ibili nintzen, itsasontzietan, hondeatzeko makinetan eta orain mehatzetan ari gara. Baina beti jardun dut alor teknikoan.

- Formazioaz arduratzen zarete?

Formazioa bai, baina beste gauza asko ere egiten ditugu, batez ere ikerkuntzan eta garapenean ari gara lanean aspalditik.

- Zein da hona datorren ikaslearen profila?

Gure arloan, Torreta, Artamendi, LHI (Lanbide Has-tapenatarako Ikastegiak) eta



Eibarren jaio zen duela 48 urte. Bost anai arreben artean bigarrena da. Alaba eta seme baten aita. Hegazkinak dira bere zaletasun eta grina. Azken 20 urteetan, enpresak prestatu eta sustatzeko Izarra zentroan dihardu lanean.

Izarra daude formaziorako. Gaur egun hona datorren ikasleak 25-50 urte bitartekoak dira eta formazio maila ezberdina dute.

- Ez dira garai onenak enpleguarentzat?

Orain jende gehiago dugu formazioan, baina gauza hauek ziklikoak dira eta duela 20 urte horrela hasi ginen. Jende langabetu asko zegoen Ermuan eta horrelako formazio zentroak jarri ziren. Hasi hura guretzat momentu ona izan zen eta orain ere horrela da.

- Ikerkuntza eta Garapena izan daitezke krisiari

aurre egiteko errezeta?

Bai, eta horrez gain formazioa.

- Zein etorkizun irudikatzen duzu?

Jendeak indarra eta gogoia jarri behar du. Gauza batzuk aldatu behar dira. Gauza berriak egin behar dira. Daukagun oinarria aprobetxatuz gauza berriak planteatu behar harko lirakeke.

- Horren aurrean nola motibatu jendea?

Motibazio handia da dirurik ez izatea.

- Oraindik ere badago lanbide ezberdinen arteko genero banaketarik?

Hemen asko nabaritzen da. Oraindik etortzen diren gehienak mutilak eta gizonetzkoak dira. Oso emakume gutxi etortzen dira.

- Zer ikasi duzu lan honetan?

Lasaitzen ikasi dut.

- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Jende faltsuak.

- Zerk pozten duzu eguna?

Gauzak ondo irteteak.

- Zer dela eta Toro?

Hetori deitzen zidaten. Hortik tori, toro bilakatu zen. Aspaldiko kontua da, baina Lekeition oraindik batzuek Hetori deitzen didate.

- Lekeitiara astebururo joaten zarete. Hango txokoren bat?

Faroa.

- Ermuko tokiren bat aukatze kotan?

Plaza.

- Aisialdian...

Itsasertzetik paseatzea. Mendia ez dut gustuko. Ba-koitzak bere neurria dauka eta nirea 0 metrokoa da.

- Afizioaren bat

Hegazkinak. Garai batean hegazkinen erakusketak egiten nituen, orain ez dut denborarik. Ur-hegazkinak oso gustuko ditut, hori da nire espezialitatea.

- Zer da egunero kale egin gabe egiten duzun hori?

Goizean jaikitzea.

- Ametsik?

Egiten dudana egin, baina hobby moduan, ez lan moduan.

- Zer eskatuko diozu 2011ri?

Ekonomi krisitik ateratzea.

Alazne Aiestaran

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKI LORE

Matxalen Ziarsolo: “Euskarak ere bere lekua behar du kirolean”

Ermuarra jaiotzez baina gaur egun Zaurutzen bizi da. 28 urte ditu eta Donostiako Bera-Bera eskubaloi taldeko jokalaria profesionala da. 10 urte daramatza taldean eta 8, goreneko mailan jokatzen. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko hainbat udalek, Ermukoak barne, ‘Aukeratu Zeurea’ deituriko kanpainan hartu dute parte, kirolean euskara sustatzeko deia eginez.

- Zer moduz?

Ondo nago. Jada zortzigarren denboraldia dut lehen taldean, aurkitu dut nire lekua eta gustura.

- Aurten taldea erabat berritu da...

Bai, iaz batzuk taldea utzi zuten eta aurten taldea berri osatzen gabiltza. Erronka bat da hori ere eta momentuz sailkapenean goi postuetan gaude.

- Orain atsedena duzue urtarilla bitartean...

Europako Txapelketa da jokoan eta beraz ligak atsedena hartu du. Alderdi fisikoa lantzeko eta atsedena pixkat hartzeko baliatuko dugu.

- Garai batean Ermuko neska gehiago ere baziren taldean...

Ixone, Esther, Ainara. Pena handia hartu nuen taldean bakarrik gelditu nintzen. Umetatik elkarrekin

hainbat ordu, hainbat neke eta poztasun uneak pasa ostean, baina bizitzak aurrera darrai!

- Zein egoeratan dago emakumeen eskubaloia?

Azken hamarkadan aurre-rapauso asko eman da. Babesleak gehiago dira, maila ere asko hobetu da, baina oraindik asko dago egiteke.

- ‘Aukeratu zeurea’ kanpainan hartu duzu parte...

Ermuko Udaleko euskara teknikaria den Fernando Aranberrik deitu zidan ea prest nengoen kanpainan parte hartzeko eta baietza eman nion. Beste bizkaitar bat ere bada taldean, Zulai Agirre bermeotarra, eta bion artean egin genuen argazkia.

- Kirolean euskara sustatzea du helburu kanpainak...

Euskarak ere kirolean bere lekua behar duela uste dut. Eskubaloiaz gain, pilotariak, arraunlariak, txirrindulariak, kirol arloko aurpegi ezberdinak azaltzen gara. Kirol bakoitzerako hiztegi teknikoak ere egin dute. Informazioa, www.aukeratuzeurea.biz webgunean agertzen da.

- Zuon taldean euskarak badu lekurik?

Reyes Karrere gure entrenatzailea euskalduna da eta berarekin euskaraz egiten dut. Taldean badira euska-



raz ez dakitenak ere, baina haiek ere ahalegintzen dira ikasten eta jakitun dira euskara ere badela gure egunerokoaren parte.

- Ikastetxez ikastetxe ibilizarete?

Ez, soilik gure irudia eskaini dugu. Hala ere, Euskararen egunean, Ongaraiko Bigarren Hezkuntzako Institutuan izan ginen Zulai eta biok eta ikasleekin tarte polit bat pasatzeko aukera izan genuen euskara eta ki-

rola aitzaki hartuta.

- Aurrera begira zein asmo dituzue?

30 urte izan arte goi mailako kirolean segi nahiko nuke. Adin horretara iristean ikusiko da.

- 2011ari zer eskatzen diozue?

Europako lehiaketara itzultzea. Aurten ez dugu jokatu eta 2 urte jarraian Europatik kanpo, gogorra litzaiteke.

Asier Ibaibarriaga






- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**

943172665 ERMUA



Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*

Txinpartak

Maite ditut maite gure bazterrak, lanbroak izkutatzen dizkitanean...


Herri txikia da Mallabia, herri handiagoez inguratua. Oraintsu arte baserriak izan dira gure herriaren sostengu eta bizibide. Azken urteetan, aldiz, industria gu-neak garatu dira, nabarmen aldatuz gure paisaia eta gure bizi izateko era. Gure txikitasunean bere izateari eutsi nahian dabilen herria gara, ezinbestean gaurko mundu globalizatu honek begien aurrean jartzen dizkigun aukereta moldatuz, baina geure nortasunari uko egin gabe, harrotasunez, konplexurik gabe.

Herri euskalduna da Mallabia eta etorkizunean ere hala izan nahi duena. Euskaraz bizi nahi izatea, ordea, ez da zailtasunik

gabeko erronka. Eta hor dihardugu, gure eskasiei erantzuna eman nahirik, askotan pausoa nora eman ez dakigula.

Zailtasunak zailtasun, bada gure herrian ekimen ederrik dugunaz harro egoteko, Mallabia UEMAn sartu zen ekainean. Herri euskaldun gisa dagozkigun esku-bideen alde lan egiteko tresna bat da UEMA eta leloak zioen moduan 'ein eingou'. Herritarrek eta administrazioak bat eginda egin beharreko bidea, dudarik gabe.

Apirilean Jasokunde abesbatzak lau haizetara zabaldu zuen gure herriaren izena telebistako programa ezagun bati esker. Happy dayko sugarrak itzali ziren, baina sugar haien hondarrea txingar beroak daude, suak bizirik dira uela aditzera ematen digutenak.




Pello Mugarza

Udaberrian Itsaso Pradera munduko txapelketan garaile atera zen gomazko pilota kategorian eta txapeldunorde trinkete kategorian. Ez da lorpen makala gurea bezalako herri txiki batentzat!

Lorpen handien atzean isilpeko lan handia egon ohi da, eta horiek guztiak bere denbora eta lana eskaini dutenen lan eskergari zor jasotako emaitzak dira: dantza talde, euskara elkarte, kirol taldeak, nagusien abesbatza, guraso elkarte, eskola ...

Horiek denak herria gorpuzten duten ekimen txalogarriak, sarriegi liluraren sugarrek ikusten uzten ez dizkiguten txinpartak.

Gure txikitasunean bere izateari eutsi nahian dabilen herria gara



IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen



TXINDURRI
TALDEA
Tokian tokiko



Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINITZA BEREZIA
OSTRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA


ETXEAK SALGAI

Tiburcio Anituako 17. peoran pisua salgai (Amañan). Ekipatuta (umearen logela izan ezik) eta duela bi urte erreformatuta. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Trastelekuarekin. Berokuntza indibiduala. Zuzenean bizitzera sartzeko moduan. 189.000€. © 636761383


Castro Urdialesen pisua salgai (Derechos Humanos kalean, Maya eraikinean). Eraikina berria da 2 logela, egongela, komuna, trasteleku eta garajea du. Etxe guztiak kanpora ematen du, eguzkitsua. 186.000€. © 636761383

ZERBITZUAK

Eguneroko eta betiko edota zeuk gura dituzun janak prestatzen ditut. Etxera eroateko edo zure etxean bertan prestatuta. Sukaldari eta gozogle tituluduna. 676090814. Ainara.



Abenduaren 22an Zorionak HAIMAR zure 7. urtebetetzean! Zu bai loteria! Muxu asko, Joane, amatxo eta aitaxoren partez. Txapeldun!!



Abenduaren 26an Zorionak Jon!! Zure 4. urtebetetzean. Ondo pasa eta muxu handi bat aita eta amaren partez.



Urtarrilaren 10ean Zorionak Nora zure 18. urtebetetzean eta muxu handi bat zure koadrilakoen partez. Maite zaitugu! :)



Urtarrilaren 30ean Zorionak Galder Iker, ama eta aitaren partez. Ondo pasatu!



Urtarrilaren 12an Zorionak Iker, 13 urte jada!! Ondo pasa zure egunean!



Graciana Resano Goñik 100 urte bete zituen abenduaren 15ean. Ziraukin jaio zen arren (Nafarroan), 1983. urtean Ermura etorri zen eta hemen bizi izan da ordutik hona. Zorionak Graciana!!

Bidali zure zorion-agurra edo iragarkia
drogeten@gmail.com helbidera edo
Elexostera ekarri (Erdikokale 2, 1.).
Hurrengo zenbakirako azken eguna:
Urtarrilaren 15a

MENDIOLA

Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)



“Adituak gara ondo
elikatzen irakasten”

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta
Dietetikan Diplomata

Komentukua 1, behea
943 17 63 72

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Ardo banatzailea:

Riedel	Hugel&Fills
Avgvstvs	Anima Negra
Clos Mogador	Irache
Yllera	Cillar de Silos
Cantosán	Vriego
Luis Cañas	Laurona

DISTRIBUCIONES ARRAL
TELEFONOA: 943 17 60 75

MALLABIA 1965

Areition atera zen argazki hau, duela 45 urte inguru. Bertan agertzen dira: M^{re} Tere Antxia, Miren Antxia, Jesusa Azagirre eta Rosario Mujica.



ERMUA 1961



Elisa Ziarsolo 'Kastotxuanekua' ren solteratako despedida. 1961ko martxoaren 26an atera zen argazkia.

* Zure argazki zaharrak Drogeteniturrin kaleratzea nahi baduzu, ekarri Elexostera (Erdikokale 2, 1.) edo bidali posta elektronikoz drogeten@gmail.com helbidera.

Yoga eskola

Sanatana Dharma

* Arnasketa.
* Ariketa fisiko egokiak...

San Roke 24, behea · 943748593
685722131 (Idoia) 639652729 (Lourdes)

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**

Asteheneretik ostiralera getan zabaltzen dugu

PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

Aurtengo gabonetan krisia inoiz baino gehiago nabarituko dela azaldu dute hainbat adituk eta familia bakoitzeko aurrekontua txikiagoa izango da. Dirua ez dago xahutzeko. Hori dela eta kalera irten gara aurtengo gabonak nolakoak izango diren galdezka:

**Nola ospatzen dituzu gabonak? Krisiak eragina izango du?
Zer menu izaten duzue?**

Gabonak, familiarekin pasatzen ditut, aurretik erabakitzen dugu nola egin eta zeinenean pasatu. Garai hauetan, ez diogu krisiari begiratzen. Urteroko gastua mantentzen dugu, baina pasatu gabe. Aurtengo gabonetako menua: entranteak, langostinoak, arrain sopa eta erreboilo edo legatza izango da.



Begoña Roteta, 70 urte



Gabonetan nire etxean aizta, lobak eta alaba batzen gara, guztira 16-18 bat lagun. Gurean krisiak ez du eraginik, menua ez dugu aldatzen eta oparietarako beti diru topea jartzen dugu. Gure menuan entrante ugari (bero zein hotzak), karakolak, okela eta konpota ez dira inoiz falta.

Berta Yarza, 70 urte

Gabonak familian pasatzen ditugu. Gabon gaua, amaren aldeko senitartekoekin ospatzen dugu. Gabon zaharra, aitaren aldekoekin batzen gara amamaren etxean. Gurean krisiak eraginik ez duela uste dut, iazko gastu berbera mantenduko dugu. Menua, aitona-amona, ama eta izekok egiten dute: entrante batzuk, okela, arraina eta postrea, edaria noski, ez da inoiz



Aritz Agirregomezkorta, 27 urte



Guk gabonak familian pasatzen ditugu, etxeokak (seme, loba eta aitzak) elkartzen gara. Ez dut uste krisiak eraginik izango duenik. Gabonetan, aurreko urteko gastua mantentzen dugu, beti bezala. Menuari dagokionez, etxean egin eta prestatutako entrante hotz eta beroak izango ditugu, arraina eta postrea.

M. Elena Iturriagoitia, 64 urte

Gabonak, Galizian pasatzen ditut familiarekin batera. Bertan 10 bat senitarteko biltzen gara. Krisiak eragina izango duela uste dut, nik neuk, oparietan aurreztuko dut. Menuari dagokionez amak prestatzen du, urtero menu berbera. Gurean ohikoa da almejak eta bildotsa jatea.



Alexander Conde, 29 urte



Gabonak gurasoen etxean ospatzen ditut, bertan etxeokak batzen gara. Krisiak, oparien kopuru edo gastuan eragina izango duela uste dut, gure menuari dagokionez, ez du eraginik izango urteroko menua mantentzen dugulako. Janaria, amak prestatzen du. Gure menua entrante asko, bildotsa, legatza eta postreak osatzen dute.

Carlos Aliende, 41 urte

Testua: Igone Amesti / Argazkiak: Eba Beitia

Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312

www.joyeriasenen.com /joyeriasenen@gmail.com

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 2:
'The karate kid'

Hilak 9:
'Como perros y gatos'

Hilak 16:
'Midas erregearen altxorra'

Hilak 23:
'Valentino, el clan del clan'

Hilak 30:
'Astroboy'
17.00etan.
Lobiano Kultur Gunean.
Sarrera dohainik.

ZINE-KLUBA

Hilak 13:
Zehaztu barik

Hilak 20:
Zehaztu barik

Hilak 27:
Zehaztu barik
19.00 eta 21.30ean.
Lobiano Kultur Gunean.
Sarrera dohainik.

MUSIKA

Hilak 22:
Yoio Cuesta
(jazz- blues). 20.00etan.
Lobiano Kultur Gunean.
Sarrera: 5€



Hilak 30:
Ermuan Kantuan
(kalejira). 12.30ean.
Orbe Kardinalren
plazatik.



ANTZERKIA

Hilak 28:
'Cazando gamusinos'
Dani Pérez.
22.15ean.
Lobiano Kultur Gunean.
Sarrera: 5€

ERAKUSKETAK

Hilaren 3tik 16ra:
Eskulturak:
'Ispillu magikoa'.
Josu Gascón.

Hilaren 17tik 30era:
Kirol argazkiak:
Oscar Blanco.
Lanegunetan
18.00etatik
20.00etara.
Asteburuetan
12.00etatik
14.00etara eta
18.00etatik
20.00etara.
Lobiano Kultur Gunean.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilaren 4ra arte:
Gabonetako Haur Parkea: Puzgarriak, ohe elastikoak, jumping, bideo-konsolak, jolasak, tailerrak, irakurtzeko gunea...
11.30etatik
13.30era eta
16.00etatik
20.00etara.
26an goizean, 31n arratsaldean eta 1ean itxita. Udal Kiroldegian.
Sarrera: 2€

Hilak 5:
Errege Magoen kabalgata. 18.00etan.
Sallabenteko ikastetxetik.

Hilak 29:
Haurrentzako antzerkia:
'Tira! Aurrera!'. Panta rhei taldearen eskutik.
17.00etan.
Lobiano Kultur Gunean.
Sarrera: 5€

BESTELAKOAK

Hilak 23:
Extremadurako txarri-boda. 10.00etatik.
Extremadurako Zentruan.

Patxi López

Harategia

M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak
GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

OPTICA
J. CASADO

Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL
Harategia

TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

hamburguesería
TITANIK



Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

GABON

ZURE

EROSKETAK GASTEIZEN



ANTOLATZAILEA:



BABESLEA:



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Gabonetako erosketa gida



KENKE
- Street wear -

Zubiaurre 13, behea · 943033788 · 48260 Ermua (Bizkaia)



IZAGIRRE

Calvin Klein
Punto Blanco
DIM
Playtex
Wonderbra
Freya

**Aurten,
...
55. urteurrena!!**

Komentukua kalea 2 48260 Ermua - Bizkaia **943 170 277**



YONARI
bisuteria eta osagarriak

**Zorionak eta
urte berri on
gure bezero
guztiei!!**

Erdikokale 3, behea



P AUTOSERVICIO DE CALZADO **PABLO** QINETAKO AUTOZERBITZUA

Sexto Centenario 19, ERMUA
943 17 54 09



Poltsak, karterak, gerrikoak,
manikurak, maletak,
osagarriak eta opariak.

SAGARDUI
poltsak

943 170305
sagardui@sagardui.com

Zubiaurre 29
48260 Ermua (Bizkaia)



Marfil

ILEAPAINDEGI BAT BAINO GEHIAGO

Osasuna · Edertasuna · Estetika

Goenkale 12 behea - ERMUA · 943 17 28 09



Quetzal

Arropa, bitxiak, opariak...
zer ez!

Goenkale 9 · ERMUA **943170065**



optika
irze

Probaleku 7 - Ermua
943 17 46 51

Bezero guztiarentzako
jai zoriontsuak!